

Intxaurrondo

Gazteen aholkulari

Donostiako gazteek hamaika zalantza argitu ditzakete Otxoki elkartearen Gazte Elkarbidean.

Intxaurrondon dago Gazte Elkarbidea, eta gazteen kezkei erantzuten ahalegintzen dira bertan.

Otxoki elkarte duela hamaika urte hasi zen gazteekin lanean. Itsaso elkartekideak adierazi digunez, "gazte askok komunikatzeko beharra zutela antzeman genuen. Beraz, euren kezkek, nahiak... jasotzen hasi ginen". Hortik sortu zen, hain zuzen, gazteen zalantzei erantzuteko telefono zerbitzua.



Lehen urteetan Otxokikoek etxebizitza batean jasotzen zizuten gazteen deiak. Duela lau urte, berriz, Gazte Elkarbidea sortu zuten eta orduz geroztik, Intxaurrondoko egoitzan ari dira lanean. Itsasoren esanetan, "erakundeek begionez ikusi dute ekimena. Foru Aldundiak antzeko egitasmo bat abian jarri zuen duela zen-

bait urte, baina ez zuen arrakastarik izan. Guk sortutakoa, aldiz, pixkanaka-pixkanaka aurrera doa".

Itsasok esandakoaren arabera, "gaztetxoek ez dizkigute soilik arazoak kontatzen. Bazuetan ez dute batere garbi zer ikasi. Beste zenbait gaztek ez dakite aisialdian zer egin. Gure aholkuak askotan lagun-garriak izan daitezke. Ekime-

Hiru lagunek gazteen deiak jasotzen dituzte

na, batez ere, gazteei begira egina dagoen arren, helduen deiak ere jaso izan ditugu". Hala ere, Gazte Elkarbidea ez da telefono deietara mugatzen, eta gaztetxoek kezkei eta arazoei jabetzeko, kale jarraipena ere egiten da.

Web orrialdea

Gazte Elkarbidearekin, telefonoz ezezik, internet bidez ere harremanetan jartzeko aukera dago (www.pagina.de/itsaso). Otxokiko lagunek iaz sortu zuten web orrialdea eta dagoeneko, 1.500dik gora bisitari izan dituzte: "Oso pozik gaude web orrialdeak izandako harrerarekin. Euskal Herri-tik kanpoko hainbat gazte ere gurekin harremanetan jarri dira. Ez dugu sendagileen edo psikologoaren lana ordezkatu nahi. Hala ere, gure zerbitzua osagarria izan daitekeela uste dugu".

Gaur egun hiru lagun ari dira Gazte Elkarbiden deiak jasotzen eta zerbitzua elebitan eskaintzen dute. Datozen hilabeteotan irrati tailerra ere antolatuko da. Itsasoren iritziz, irrati tailerra "gazteak erakartzeko bide aproposa izan daiteke".

Gazte Elkarbidearekin harremanetan jarri nahi dutenek 943322990 telefono zenbakira hots egiten dezakete.

Gazte Elkarbidea duela lau urte sortu zen

Santa Ageda bezpera

Euskal Herriko beste txoko askotan bezalaxe, hamaika talde ibili ziren Santa Ageda bezperan, hilaren 4an, auzoan barrena kantari. Baserritarrez jantzita eta lurra makilekin gogor kolpatuz, intxaurrondotar hauek koplak zaharrak abestu zituzten etxe, taberna eta elkarteetan.



El Andorrano
1860tik zurekin
Alkandorak • Lentzeria
Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: (943) 420607

AGINAGA SAGARDOTEGIA



Egunero zabalik
astelehenetan ezik

txotxetik



Aginaga - USURBIL • Tel.: 943-366710 - 943-370668